



---

**GIDARI-ESKOLA PRIBATUAK**

---

**IZAPIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA**

---

<a href="#">0.- <u>Gidari-eskola pribatuak jarduteko gutxienez behar dituen derrigorrezko elementuen xehetasuna.</u></a>	<a href="#">2</a>
<a href="#">1.- <u>Gidari-eskola pribatua irekitzeko baimena.</u></a>	<a href="#">3</a>
<a href="#">2.- <u>Irekitzeko baimena aldatzea:</u></a>	<a href="#">5</a>
2.1.- Eskolaren izena aldatzea.	
2.2.- Lokalei buruzko aldaketak.	
2.3.- Lursailei eta praktiketarako zonei buruzko aldaketak.	
2.4.- Zuzendaritza-langileak: alta, baja, jarduteko baimena aldatzea.	
2.5.- Irakasleak: alta, baja, jarduteko baimena aldatzea.	
2.6.- Ibilgailuak: alta, baja, berrikuntzak.	
2.7.- Baimenak: irakaskuntzaren norainokoa zabaldu edo murriztea.	
2.8.- Titularraren sozietate-modua aldatzea.	
<a href="#">3.- <u>Eskolaren edo atalen ala sukurtsalen jarduerak borondatez etetea (gehienez urtebetez).</u></a>	<a href="#">8</a>
<a href="#">4.- <u>Eskolaren edo atal ala sukurtsalaren baja.</u></a>	<a href="#">9</a>
<a href="#">5.- <u>Atala edo sukurtsala irekitzeko jakinarazpena.</u></a>	<a href="#">10</a>
<a href="#">6.- <u>Eskualdaketak:</u></a>	<a href="#">11</a>
6.1.- "Inter vivos" eskualdaketa.	
6.2.- "Mortis-causa" eskualdaketa.	
<a href="#">7.- <u>Ibilgailuen elkarteak:</u></a>	<a href="#">13</a>
7.1.- Ibilgailuen elkarte bat inskribatzea.	
7.2.- Ibilgailuen elkartean eskolak gehitu edo murriztea.	
<a href="#">8.- <u>Zigiluak eta kopiak:</u></a>	<a href="#">14</a>
8.1.- Erregistro-liburua zigilatzea.	
8.2.- Plakak zigilatzea.	
8.3.- Jarduteko bereizgarri eta baimenaren kopia.	
8.4.- Irekitzeko baimenaren kopia.	

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### **0.-** **Gidari-eskola pribatuak jarduteko gutxienez behar dituen derrigorrezko elementuen xehetasuna.**

Gidari-eskola pribatua irekitzeko baimena behar da eta instalatu nahi den lurraldeko Trafikoko Lurralde Bulegoak ematen du.

Irekitzeko baimena Espainiako lurralde osoan baliozkoa da eta titularra edozein lurralde edo probintzian atalak edo sukurtsalak irekitzeko gaitzen du. Atal edo sukurtsal bat irekiz gero, titularrak funtzionatzen hasi baino lehen jakinarazi beharko du.

Zer elementu behar dira gidari-eskola pribatua irekitzeko?

- Titular bat: pertsona natural edo juridikoa
- Zuzendari bat
- Eskola, atal edo sukurtsaleko irakasle bana
- Jarduera garatzeko lokala, hain zuzen ere, indarreko araudiak xedatutako baldintzak betetzen dituena.
- Praktiketarako lursailak: jabetza-titulua, erabiltzeko eskubidea edo udal-lursailak erabiltzeko udal-baimena (bakarrik AM, A1, A2, A eta B baimenatarako) B+E, C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E baimenatarako eskola bereko edo elkarte ala sozietate bati atxikitako eskolen arteko atal edo sukurtsalen artean lursailak parteka daitezke. Elkartea edo sozietatea elkartutako edo bildutako eskoletako titularrek osatuko dute.
- Ibilgailuak: eskolak irakasten duen baimen-mota bakoitzeko bana. Elkarrekin ibilgailuak partekatzeko (B+E, C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E) eratuak daudela egiaztatu beharko dute.
- Irakats daitezkeen baimen-motetarako indarreko araudiak eskatzen dituen ezagutza eta jarrerekin bat prestakuntza teorikoa irakasteko beharrezkoa eta egokia den gutxieneko material didaktikoa. A1, A2 edo A baimenak irakats ditzaketan eskolek, atalek edo sukurtsalek esku libreen komunikazio-sistema izan beharko dute, bai gidatzen eta zirkulatzen ikasten ari direnean, bai jarrerak eta portaera kontrolatzeko probak egiten ari direnean erabiltzeko.
- Erregistro-liburua, ikasleen fitxak eta ikasleen kontratuak

369/2010 Errege Dekretuak, martxoaren 26koak, urriaren 17ko 1295/2003 Errege Dekretuak onartutako gidari-eskola pribatuei buruzko araudia aldatzen duenak, xedatutakoari jarraiki, pertsona bakarreko eskolak eta bi irakasleen eskolak desagertzen dira, bigarren kasuan, gidari-eskola pribatuaren zuzendariaren gaitasun-agiririk izan gabe, batek zuzendaritza-funtzioak betetzen bazituen.

Hala eta guztiz ere, Errege Dekretuaren lehenengo behin-behineko xedapenaren arabera, Errege Dekretua indarrean sartu baino lehen emandako baimenek titularra garatzen ari zen jarduera egiten jarraitzeko gaitzen dute.

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 1.- **Gidari-eskola pribatua irekitzeko baimena.**

#### Eskabideak aurkeztea:

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### Dokumentazioa:

- Titularraren NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatu ahal izateko baimena. Eskolaren titularraren pertsona juridikoa bada, sozietatea eratuta dagoela ziurtatzen duten dokumentuen fotokopia aurkeztu beharko da, originalekin batera. Alderatu ostean, bigarrenak itzuli egingo dira.
- Udaletxean aurkeztutako aitoren arduratsua edo aurretiko jakinarazpenaren kopia, honako hau egiaztatzen duena: lokalek eskolaren jarduerarekin aritzeko udal-araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituztela.
- Zirkuitu itxian klase praktikoetarako lursailak izanez gero, egiaztatzen duen dokumentua eta klaseak horietan irakasteko udal-baimena edo, hala badagokio, baimena beharrezkoa ez dela frogatzen duen ziurtagiria. Lursailik ez badu, gidatzen irakasteko baldintza egokiak dituzten zonetan praktikak egiteko udal-baimena aurkeztu beharko da.
- Zuzendaritza-langileak: era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:
  - a) NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatu ahal izateko baimena.
  - b) Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zigorra edo kondena ez dela ari betetzen edo puntu guztiak ez dituela galdu idatziz egindako aitortea. Halaber, araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
  - c) Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratu.
  - d) Gidari-eskola pribatuaren zuzendariaren gaitasun-ziurtagiriaren kopia.
- Irakasleak: era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:

- a) NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatu ahal izateko baimena.
  - b) Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zigorra edo kondena ez dela ari betetzen edo puntu guztiak ez dituela galdu idatziz egindako aitortpena. Halaber, araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
  - c) Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratu.
  - d) Gidari- eskola pribatuaren irakaslearen edo bide-prestakuntzarako irakaslearen gaitasun-ziurtagiriaren kopia.
- Material didaktikoaren zerrenda
  - Zentroak izango dituen ibilgailuen zerrenda. Ezaugarriak eta erabilera-baldintzak (irakaskuntza edo laguntza) zehaztuko dira. era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:
    - a) Zirkulazio-baimena
    - b) IATren txartela
    - c) Derrigorrezko aseguru
    - d) 2 L plaka
  - Eskatzailea edo pertsona juridikoa izanez gero, bazkide bakoitza, baita zuzendaritza-langileak eta irakasleak ere gidari-eskola pribatuak arautzeko araudiak 12. artikuluan aipatzen duen debekurik ez dutela azaltzen duen idatzizko aitortpena.

---

## **Gidari-eskola pribatuak**

---

### **2.- Irekitzeko baimena aldatzea.**

#### Eskabideak aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### **2.1.- Eskolaren izena aldatzea.**

- Ez da dokumentaziorik behar.

#### **2.2.- Lokalei buruzko aldaketak.**

- Lokalek eskolaren jarduerarekin aritzeko udal-araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

#### **2.3.- Lursailei eta praktiketarako zonei buruzko aldaketak.**

- Zirkuitu itxian klase praktikoetarako lursailak izanez gero, egiaztatzen duen dokumentua eta klaseak horietan irakasteko udal-baimena edo, hala badagokio, baimena beharrezkoa ez dela frogatzen duen ziurtagiria. Lursailik ez badu, gidatzen irakasteko baldintza egokiak dituzten zonetan praktikak egiteko udal-baimena aurkeztu beharko da.

#### **2.4.- Zuzendaritza-langileak: alta, baja, jarduteko baimena aldatzea.**

##### **2.4.1.- Alta:**

- NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatzeko baimena.
- Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, idatziz aitortu beharko du gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zehapena edo zigorra ez dela betetzen ari edo puntu guztiak ez dituela galdu. Halaber, Araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
- Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak.
- Gidari-eskola pribatuen zuzendariaren gaitasun-ziurtagiriaren kopia.

#### **2.4.2.- Baja:**

- Baja emango dion pertsonaren bereizgarria
- Baja emango dion pertsonaren jarduteko baimena

#### **2.4.3.- Jarduteko baimena aldatzea:**

- Pertsonaren bereizgarria
- Pertsonaren jarduteko baimena
- Aldaketa eskatzen den pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak

### **2.5.- Irakasleak: alta, baja, jarduteko baimena aldatzea.**

#### **2.5.1.- Alta:**

- NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatzeko baimena.
- Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, idatziz aitortu beharko du gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zehapena edo zigorra ez dela betetzen ari edo puntu guztiak ez dituela galdu. Halaber, Araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
- Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak.
- Gidari-eskola pribatuen irakaslearen edo bide-prestakuntzarako irakaslearen gaitasun-ziurtagiriaren kopia.

#### **2.5.2.- Baja:**

- Baja emango dion pertsonaren bereizgarria
- Baja emango dion pertsonaren jarduteko baimena

#### **2.5.3.- Jarduteko baimena aldatzea:**

- Pertsonaren bereizgarria
- Pertsonaren jarduteko baimena
- Aldaketa eskatzen den pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak

### **2.6.- Ibilgailuak: alta, baja, berrikuntzak.**

#### **2.6.1.- Alta:**

- IATren txartela
- 2 L plaka
- Ibilgailua elkarte batena bada, elkarte eratu izanaren dokumentuari dagokion fotokopia alderatua

**2.6.2.- Baja:**

- Baja emango dion ibilgailuaren L plakak

**2.6.3.- Berrikuntza:**

- IATren txartela

**2.7.- Baimenak: irakaskuntzaren norainokoa gehitu edo murriztea.**

**2.7.1.- Irakaskuntzaren norainokoa zabaltzea**

- Ez da dokumentaziorik behar.

**2.7.2.- Irakaskuntzaren norainokoa murriztea**

- Ez da dokumentaziorik behar.

**2.8.- Titularraren sozietate-modua aldatzea.**

- Sozietatearen modua aldatu egin dela egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia, originalekin batera; azkenekoak alderatutakoan itzuliko dira.

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 3.- Eskolaren edo atalen ala sukurtsalen jarduerak borondatez etetea (gehienez urtebetez).

#### Eskabideak aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### Dokumentazioa:

- Jarduerak borondatez eteten dituen eskola/atalari atxikitako ibilgailuen L plakak



---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 4.- Eskolaren edo atal ala sukurtsalaren baja.

#### Eskabideak aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### Dokumentazioa:

- Irekitzeko baimena itzultzea.
- Zuzendaritza-langileen eta irakasleen jarduteko baimenak eta bereizgarriak itzultzea.
- Ibilgailuen L plakak itzultzea.

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 5.- Atala edo sukurtsala irekitzeko jakinarazpena.

#### Jakinarazpena aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### Dokumentazioa:

- Zuzendaritza-langileen eta irakasleen zerrenda
- Zentroko ibilgailuen zerrenda. Ezaugarriak eta erabilera-baldintzak (irakaskuntza edo laguntza) zehaztuko ditu.
- Material didaktikoaren zerrenda
- Zuzendaritza-langileei, irakasleei eta ibilgailuei alta emateko 2.4., 2.5. eta 2.6. puntuetan zehaztutako dokumentazioa
- Eskola praktikoetarako lursailak. Zirkuitu itxian eskola praktikoetarako lursailak izanez gero, hori egiaztatzen duen dokumentua eta eskolak horietan irakasteko udal-baimena edo, hala badagokio, baimena beharrezkoa ez dela frogatzen duen ziurtagiria. Lursailik ez badu, aurkeztu beharko du gidatzen irakasteko baldintza egokiak dituzten zonetan praktikak egiteko udal-baimena.
- Udaletxean aurkeztutako aitorten arduratsua edo aurretiko jakinarazpenaren kopia, honako hau egiaztatzen duena: lokalek eskolaren jarduerarekin aritzeko udal-araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituztela.
- Gidari-eskola Pribatuei buruzko Araudiak 21. artikuluan xedatzen dituen baldintzak betetzen direla azaltzen duen titularraren aitorten arduratsua.

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 6.- Eskualdaketak.

#### Eskabidea aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

"Mortis causa" behin-behineko titulartasun-eskaeraren kasuan, eskaera jaraunsleak edo legezko ordezkariak egin beharko du kausatzailearen heriotzatik gehienez 90 egun naturalen epean.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### 6.1.- "Inter vivos" eskualdaketak.

- Eskualdaketa egiaztatzen duen dokumentazioa (salerosketa kontratua edo negozioaren eskualdatzearena)
- Titularraren NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatzeko ahal izateko baimena. Eskolaren titularra pertsona juridikoa bada, sozietatea eratuta dagoela ziurtatzen duten dokumentuen fotokopia aurkeztu beharko du, originalekin batera. Alderatu ostean, originalak itzuli egingo dira.
- Eskabidearekin batera, lokalei eta lursailei buruz eskatutako dokumentazioa ezin aurkeztu izana egiaztatzea.
- Zirkuitu itxian eskola praktikoetarako lursailak izanez gero, egiaztatzen duen dokumentua eta eskolak horietan irakasteko udal-baimena edo, hala badagokio, baimena beharrezkoa ez dela frogatzen duen ziurtagiria. Lursailik ez badu, aurkeztu beharko du gidatzen irakasteko baldintza egokiak dituzten zonetan praktikak egiteko udal-baimena.
- Zuzendaritza-langileak: era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:
  - a) NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatzeko baimena.
  - b) Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, idatziz aitortu beharko du gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zehapena edo zigorra ez dela betetzen ari edo puntu guztiak ez dituela galdu. Halaber, Araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
  - c) Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak.

- d) Gidari-eskola pribatuen zuzendariaren gaitasun-ziurtagiriaren kopia.
- Irakasleak: era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:
  - a) NAN edo atzerriko nortasun zenbakiaren fotokopia edo, hala badagokio, nortasun pertsonalaren datuak kontsultatzeko baimena.
  - b) Bide judizialean edo administrazio-bidean erabaki ostean, idatziz aitortu beharko du gidatzeko baimena kendu edo eteten duen zehapena edo zigorra ez dela betetzen ari edo puntu guztiak ez dituela galdu. Halaber, Araudiak 12. artikuluan irakaskuntzan jarduteko xedatutako debekurik ez duela aitortu beharko du.
  - c) Baimena eskatzen duen pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak.
  - d) Gidari-eskola pribatuen irakaslearen edo bide-prestakuntzarako irakaslearen gaitasun-ziurtagiriaren kopia.
- Material didaktikoaren zerrenda
- Zentroak izango dituen ibilgailuen zerrenda. Ezaugarriak eta erabilera-baldintzak (irakaskuntza edo laguntza) zehaztuko dira. era berean, bakoitzeko honakoak aurkeztuko dira:
  - a) Zirkulazio-baimena
  - b) IATren txartela
  - c) Derrigorrezko aseguruua
  - d) 2 L plaka
- Eskatzaileak edo pertsona juridikoa izanez gero, bazkide bakoitzak, zuzendaritza-langileak eta irakasleak idatziz aitortu beharko dute Gidari-eskola Pribatuak arautzeko Araudiak 12. artikuluan aipatzen duen debekurik ez dutela

#### **6.2.- "Mortis causa" eskualdaketak.**

- Titularraren heriotza-ziurtagiria
- Jaraunsle-komunitatea eta bere ordezkaria nortzuk diren egiaztatzen duen dokumentazioa

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 7.- Ibilgailuen elkarteak.

#### Jakinarazpena aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### 7.1.- Ibilgailuen elkarte bat inskribatzea.

- Interesatuak sinatutako dokumentu publiko edo pribatua, honakoak azaltzen dituena:
  - Elkartearen izena
  - Harremanetarako datuak
  - Elkarte osatzen duten eskolak
  - Elkarte osatzen duten ibilgailuak
  - Ibilgailuaren erabileraren erregulazioa

#### 7.2.- Ibilgailuen elkartean eskolak gehitu edo murriztea.

- Interesatuak sinatutako dokumentu publiko edo pribatua, gutxienez, honakoak azaltzen dituena:
  - Elkarte osatzen duten eskolak
  - Ibilgailuaren erabileraren erregulazioa

---

## Gidari-eskola pribatuak

---

### 8.- Zigiluak eta kopiak.

#### Eskabidea aurkeztea

Titularrak edo legezko ordezkariak inprimaki normalizatua bete eta honako modu hauetan aurkeztu beharko du: dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako lekuetan edo moduetan.

Horrekin batera, tasa ordaindu beharko du.

Halaber, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

#### 8.1- Erregistro-liburua zigilatzea.

- Erregistro-liburua

#### 8.2- Plakak zigilatzea.

- Plakak

#### 8.3- Jarduteko bereizgarri eta baimenaren kopia.

- Kopia eskatzen den pertsonaren 32x26 mm-ko bi argazki eguneratuak

#### 8.4- Irekitzeko baimenaren kopia.

- Ez da dokumentaziorik behar